

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KIROLA ETA OSASUNAREN SAILA

Kirol erakundeei 2019. urtean jolas eta kirol jarduerak bideratzen laguntzeko diru-laguntzak emateko ebazpena

Diru-laguntzetarako deialdi publikoa arautzen duten oinarri orokor eta berariazkoen 8.4 atalean xedatutakoarekin bat etorrira, Kirol eta Osasun Saileko zinegotzi ordezkariak ebazpen hau eman du:

Aurrekariak:

2019ko martxoaren 1ean egindako ohiko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak kirol erakundeei 2019. urtean jolas eta kultur jarduerak bideratzen laguntzeko diru-laguntzetarako deialdi publikoa eta dagozkion oinarriak onetsi zituen; 2019ko martxoaren 15eko ALHAOn -32 zk.- argitaratu ziren oinarriak, eta 2019ko apirilaren 15era arteko epea eman zen eskaerak aurkezteko; 352.500,00 euroz hornitu da deialdia, hain zuzen, 89.000,00 euro A atalerako, 57.500,00 euro B atalerako, 120.000,00 euro C atalerako, 67.000,00 euro D atalerako eta 19.000,00 euro E atalerako.

Dirulaguntzen deialdia eta horiek emateko izapidea bizkortzeko asmoz, C, D eta E taldeen ebazpena egiten da orain, 206.000,00 euroko gehieneko zenbatekoan, eta geroago egingo da A eta B taldeei dagokien ebazpena.

Eskabideak eta alegazioak aurkezteko epea bukatu, deialdiko bederatzigarren oinarrian eskabideak balioesteko aurreikusita dagoen organo kolegiatuak hiru alegazio jaso ditu behar bezala eta epe barruan emate-proposamenaren kontrako; beraz, dagokion ebazpena eman du.

1. Arabako Boxeo Federazioak argudiatu du "10 Open Internacional de Boxeo EBA 2019" ekitaldiaren balorazioan ez dela kontuan hartu izan publizitate gisa adierazitako gastu jakin bat, halako moduan non behar lukeena baino baxuagoa gertatu den balorazioa. Egiaztatu ostean, aintzat hartu da alegazioa eta berriro baloratu da.

2. Emakumezkoen Eharia eskubaloi klubaren eskabidea ezetsi egin zen, dirulaguntzen deialdiko E atalaren eskakizunak ez betetzeagatik. Klubak argudiatzen du lehenengo maila nazionalen jokatzeko duela, eta betetzen duela E atalean adierazitako eskakizuna. Beharrezko egiaztapenak egin ondoren, erabaki da alegazioa ezeztea, klubak jokatzeko duen kategoriak ez duelako E atalean adierazitako eskakizuna betetzen.

3. Jatorria boleibol kirol klubaren eskabidea ezetsi egin zen, dirulaguntzen deialdiko E atalaren eskakizunak ez betetzeagatik. Klubak argudiatzen du bigarren maila nazionalen jokatzeko duela, eta betetzen duela E atalean adierazitako eskakizuna. Beharrezko egiaztapenak egin ondoren, erabaki da alegazioa ezeztea, klubak jokatzeko duen kategoriak ez duelako E atalean adierazitako eskakizuna betetzen.

Kirol eta Osasun Sailak Arabako Foru Ogasunetik eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusitik informazioa jaso du behin-behineko ebazpen proposameneko onuradun zerrendako erakundeek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteak dituzten egiaztatze aldera.

Informazio horren arabera, ebazpen proposameneko onuradunen zerrendan ageri diren erakunde guztiek betebeharrak bete dituzte.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 e) artikuluan nahiz Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 6.1 artikuluan xedatuta dago ezin izango direla onuradun izan indarrean diren arauak ezarritako zerga betebeharrak bete ez dituzten edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak bete ez dituzten pertsona edo erakundeak.

Oinarri orokorretako 9.2 eta 19 ataletan xedatutakoaren haritik, diru-laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena jakinarazteko komunikabideak ALHAO eta Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa (www.vitoria-gasteiz.org) izango dira, bai eta Diru-laguntzen Datu-base Nazionalan argitarapena ere.

Ondorioak:

Diru-laguntzetarako deialdi publikoa arautzen duten oinarri orokorrak eta berariazkoak ikusi dira.

2019ko ekainaren 27an eskabideak balioesteko organo kolegiatuak C, D eta E ataletarako eman duen ebazpen-proposamena ikusi da.

Alegazioak ebatzi dira.

Aurrekontuan badago nahikoa zuzkidura, Kirol eta Osasun Sailaren aurrekontuko 2019/23.20.03.3411.48935 partidaren kontura ordaintzea proposatu den 206.000,00 euroko kopururako.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren ezarritakoa kontuan hartu da, baita Vitoria-Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantza ere –Udalbatzak 2005eko ekainaren 17an egindako ohiko bilkuran onetsia eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn (5 zenbakia) argitaratua–.

Horrenbestez, eta 2019ko ekainaren 21ean eskuduntzak eskuordetzeari buruz Tokiko Gobernu Batzarrak hartu zuen erabakia ikusirik, Kirol eta Osasun Saileko zinegotzi ordezkariak hau

Ebatzi du:

Lehena: Udaleko Kirol eta Osasun Sailak 2019. urtean jolas eta kirol jarduerak bideratzen laguntzeko C, D eta E taldeentzako dirulaguntzetarako deialdiaren barruan proposatutako diru-laguntzak (206.000,00 euro) eman daitezten onartzea, honako zerrenda hau kontuan hartuta:

1. Onetsitako eskaerak:

| ERAKUNDEA | EKITALDIA / JARDUERA | IFK | PUNTUAK | SUBVENCION |
|------------------------------------|--|-----------|---------|---------------|
| Beti Aurrera Kirol Elkarte | Banakako Gim erritmikoaren 19. txapelketa nazionala eta nazioartekoa | G01204338 | 297 | 6.385,50 euro |
| Maratlón Elkarte | 11. Vitoria-Gasteiz MendiTrail 2019 | G01505684 | 206 | 4.077,29 euro |
| Aurrera Futbol Kirol Elkarte | Emakumezkoen 11. futbol txapelketa nazionala | G01035419 | 163 | 3.504,50 euro |
| CETED Vitoria Gimnastika Kluba | Vitoria Nazioarteko Gimnasia Orena | G01553072 | 380 | 8.170,00 euro |
| Shindokai Kendo Kluba | Gasteiz Hiria Nazioarteko 19. Kendo Txapelketa | G01298686 | 220 | 3.007,61 euro |
| Arbe Hipika Kluba | Vitoria-Gasteiz Nazioarteko 18. Hipika Raid-a | G01175348 | 290 | 6.235,00 euro |
| Gasteizko Klub nautikoa | Espainiako bela txapelketa IOM mota | G01007533 | 128 | 2.752,00 euro |
| Oskitxo Gimnastika Kluba | Gimnasia Erritmikoko Banakako 13. txapelketa nazionala | G01050343 | 209 | 4.493,50 euro |
| Arabako Atletismo Federazioa | Vitoria-Gasteiz 41. maratoi erdia | G01047257 | 351 | 7.546,50 euro |
| Arabako Atletismo Federazioa | San Silvestre 36. lasterketa | G01047257 | 347 | 7.460,50 euro |
| Arabako Atletismo Federazioa | 9. DIP Atletismo Saria | G01047257 | 233 | 4.550,00 euro |
| Arabako Boxeo eta Gken Federazioa | Nazioarteko 19. EBA Orena 2019 | G01047182 | 338 | 7.267,00 euro |
| Arabako Gimnastika Federazioa | Eguberrietako Nazioarteko Gimnastika Gala | G01047760 | 356 | 7.854,00 euro |
| Arabako Gimnastika Federazioa | Nazioarteko FAG txapelketa. Gizon eta Emakumezkoen Artistikoa | G01047760 | 110 | 2.166,73 euro |
| Arabako Igeriketa Federazioa | Espainiako Master 2. Iraupen txapelketa | G01048578 | 242 | 4.704,20 euro |
| Euskal Iristaketa Federazioa | Skateboard-a (street modalitatea). Euskal zirkuituaren 1. proba | G48196067 | 161 | 3.100,00 euro |
| Gaztedi Errugbi taldea | 11. Araba Rugby Cup | G01045384 | 461 | 9.911,50 euro |
| Emakumezkoen Niksquahs kirol kluba | Emakumezkoen Gasteiz Hiria 4. Squash open nazionala | G01541457 | 132 | 2.567,59 euro |
| Padel Viral Sport kluba | Nazioarteko 3. Viral Sport txapelketa | G01557735 | 130 | 2.540,00 euro |
| Peña Vitoriana Tennis Kluba | José M ^o Ortega "Potxin"-en omenezko 48. tenis txapelketa | G01025915 | 163 | 3.230,00 euro |
| Peña Vitoriana Tennis Kluba | Emakumezkoen Gasteiz Hiria 1. World Tennis Tourra | G01025915 | 313 | 6.729,50 euro |
| Trail 52 Sport Mendi Kluba | Basque Ultra Trail Series zirkuitua | G95840914 | 320 | 6.880,00 euro |

| ERAKUNDEA | EKITALDIA / JARDUERA | IFK | PUNTUAK | SUBVENCION |
|--|---|-----------|---------|---------------|
| Bolajoko Arabarraren Araba Kluba | Egubierretako bolajoko arabarraren 39. txapelketa | G01271824 | 113 | 1.688,22 euro |
| Bolajoko Arabarraren Araba Kluba | Beteranoen bolajoko arabarraren 29. txapelketa | G01271824 | 66 | 477,08 euro |
| Bolajoko Arabarraren Araba Kluba | Bolajoko arabarraren 29. Lehendakariaren Kopa | G01271824 | 90 | 1.000,18 euro |
| Bolajoko Arabarraren Araba Kluba | Andre Maria Zuriaren bolajoko arabarraren 53. txapelketa | G01271824 | 104 | 1.553,76 euro |
| Bolajoko Arabarraren Araba Kluba | Binakako bolajoko arabarraren 41. txapelketa | G01271824 | 68 | 667,79 euro |
| Bolajoko Arabarraren Araba Kluba | Olarizu bolajoko arabarraren 38. txapelketa | G01271824 | 96 | 1.434,24 euro |
| Bolajoko Arabarraren Araba Kluba | Txapeldunen 4. txapelketa | G01271824 | 87 | 1.275,18 euro |
| Bolajoko Arabarraren Araba Kluba | Asamblea 5. bolo txapelketa | G01271824 | 78 | 1.165,32 euro |
| Adurtza Pilota Kluba | 39. Adurtza Jai Alai Eguberri Txapelketa | G01212976 | 87 | 1.227,21 euro |
| Zaramaga Pilota Kluba | Zaramaga 44. pilota lehiaketa | G01129469 | 228 | 3.406,32 euro |
| Zaramaga Pilota Kluba | Udazkeneko Zaramaga 2. Emakumezkoen Pilota Txapelketa | G01129469 | 153 | 2.285,82 euro |
| Zaramaga Pilota Kluba | Euskal Pilotaren Sentsibilizazio Zaramaga Auzoan | G01129469 | 191 | 2.853,54 euro |
| Gasteiz Jai-Alai Kluba | Gasteizko Hiria Jai Alai Txapelketa | G01206374 | 268 | 4.003,92 euro |
| Arabako Herri Kirolen Federazioa | Andre Maria Zuria Herri Kirolen lehiaketa | G01047133 | 269 | 4.018,86 euro |
| Arabako Herri Kirolen Federazioa | Olarizu Herri Kirolen lehiaketa | G01047133 | 193 | 2.883,42 euro |
| Arabako Pilota Federazioa | Udaberria 3. Esku Pilotaren Txapelketa (binaka) | G01033190 | 224 | 2.859,69 euro |
| Arabako Pilota Federazioa | Emakumezkoen Gomazko Pilota opena | G01033190 | 260 | 3.884,40 euro |
| Arabako Pilota Federazioa | GRAVNI pilota txapelketa | G01033190 | 320 | 4.780,80 euro |
| Arabako Pilota Federazioa | 4-1/2 Esku Txapelketa, frontenisa, larruzko paleta eta argentinarra | G01033190 | 261 | 3.899,34 euro |
| Arabako Pilota Federazioa | Emakumezkoen Green Capital Pilota Txapelketa | G01033190 | 268 | 4.003,92 euro |
| Arabako Pilota Federazioa | Andre Maria Zuriaren 24. Esku Pilotako lehiaketa (zaleak) | G01033190 | 317 | 4.735,98 euro |
| Arabako Pilota Federazioa | 4. argentinar palaren opena | G01033190 | 298 | 4.452,12 euro |
| Gasteizko Txukun Lakua Etorkizuna P.K.E. | 2019/2020 Eguberrietako 8. txapelketa | G01343334 | 150 | 2.148,69 euro |
| Gasteizko Txukun Lakua Etorkizuna P.K.E. | Klubaren 15. pilota txapelketa | G01343334 | 255 | 3.809,70 euro |
| Gasteizko Txukun Lakua Etorkizuna P.K.E. | Udako 8. pilota campusa | G01343334 | 181 | 2.450,69 euro |

| ERAKUNDEA | EKITALDIA / JARDUERA | IFK | PUNTUAK | SUBVENCION |
|----------------------------|---|-----------|---------|---------------|
| Aurrera Futbol Kirol Kluba | Emakumezkoen Aurrera 11 futbola (2. maila) | G01035419 | 421 | 4.500,00 euro |
| Zuzenak Kirol Kluba | Vital Fundazioa Zuzenak. Errugbia, gurpidun aurkian. 1. maila | G01120518 | 307 | 4.485,65 euro |
| Arabako Iristaketa Fed. | Emakumezkoen Zilarrezko Ok Liga. Patin Hockeya | G01046804 | 260 | 3.000,00 euro |
| Arabako Iristaketa Fed. | Emakumezkoen Brontzezko Ok Liga. Patin Hockeya | G01046804 | 312 | 3.000,00 euro |

2. Ezetsitako eskabideak:

- Arabako Iristaketa Federazioa

Abiadurako irristaketako liga nazionaleko bi jardunaldi antolatzea

Ezetzeko arrazoiak: - 4. puntua.

Diru-laguntzaren xede diren programa eta jarduerak

Ez da dirulaguntzarik emango ezaugarri hauetakoren bat duten kirol-proiektu edo -ekitaldiarako:

– Kirol-klub eta -elkartek lehiaketa federatu erregularretan parte hartzea edo halakoak antolatzea, deialdi honetako E multzoaren baitan gaurtik aurrera diren liga federatuetan parte hartzea izan ezik.

- Lautada Ur Polo Gasteiz igeriketa k.e.

Espainiako 2019ko gazteen kategoriako waterpolo txapelketara joatea.

Ezetzeko arrazoiak:

Deialdiaren xedea eta helburua

Oinarri hauen xedea da 2019. urtean Gasteizko udalerrian egingo diren edo herritarrek parte hartzeko izango diren jolas eta kirol jardueren antolaketa eta garapena sustatzeko diru-laguntzak emateko deialdia arautzea, ezarritako aurrekontuaren mugen barruan.

Lau eskabideak ezetzeko arrazoiak:

– 4. puntua. Dirulaguntzaren xede diren programa eta jarduerak. E multzoko programa. Kirol-taldeek estatu mailako lehiaketa ofizial federatuen egutegian parte hartzea.

Sarrera-baldintzak:

2018/2019 denboraldian Estatu mailako lehiaketa ofizial federatu ez profesionalen egutegietan —Euskal Herriko kirol federazioei buruzko 16/2006 Dekretua— parte hartzen duten taldeak aurkeztu ahal izango dira atal honetan, hauei dagozkielarik: Estatuko goreneko kategoria ez profesionaletako lehen eta bigarren mailak.

1- Emakumezkoen Ehariak eskubaloia kluba

Parte-hartzea eskubaloiko emakumeen liga nazionaleko lehen mailan; ez profesionaletako hirugarren mailari dagokio.

2. Gasteizko Aurrera kirol kluba

Parte-hartzea areto-futboleko hirugarren mailan; ez profesionaletako hirugarren mailari dagokio.

3- Jatorria boleibol kirol kluba

Parte-hartzea emakumeen bigarren mailan; ez profesionaletako hirugarren mailari dagokio.

4. Oskitxo kluba

Parte-hartzea gimnasiako Iberdrola ligan. Ez da liga nazional erregularizat jotzen.

Bigarrena: ebazpen hau Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean, ALHAOn, Udalaren iragar-ki-taulan eta Udalaren web-orrian (www.vitoria-gasteiz.org) argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena: Erabaki honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatuta; horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abuztuaren 29an

Kirol eta Osasun Saileko zinegotzi ordezkaria
LIVIA CLAUDIA LÓPEZ GUTIÉRREZ